

noaua

Andres Bruño zendu da

Aginaga, jaien azken txanpan



Urriaren 25ean zuzeneko diskoa grabatuko du Sutegin

Joseba Tapia: “Ez nago amore emateko”

Opariak eta barruko landareak



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



Lukainkategi Erretegia



Geure plateren zapore paregabeak, Añorgan jateko aukera hoberenen artean kokatzen gaitu.

Usurbiletik oso gertu, Txikierdiko aldapatik gora kotxez 3 minutu!

Astean zehar eguneko menu zabala dastatu dezakezue eta asteburuan karta bikainaz gozatzeko aukera duzue.

Aingeru Zaindaria bidea 85, 20018 Añorga Tel. 943 37 14 44

Albiste iruditzen

Irisgarritasun kognitiboan eragiten

Irisgarritasun kognitiboaren inguruan hausnartzera gonbidatu nahi gaitu, “Bizi nire errealitate intelektuala eta mugak hautsi” aldarripean Atzegik abian duen sentsibilizazio kanpaina berriak.

Gogorazten dutenez, “egunerokotasunean, ingurutik, ulertzeko zailak izan daitezkeen mezuak jasotzen ditugu eta are zailagoak izaten dira desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat. Adibidez, jabetxeetako kartak, egutegiak, garraio publikoetako ordutegiak, irudi ulertezinak, eskuorri informatiboak, hauteskunde programak...”.

Horren aurrean, eta “adibide ezberdinei esker, jendeak zailtasun horiek ulertzea nahi dugu eta mezu errazen alde egitea, pixkanaka denontzat ulerterraza den ingurunea eraikitzeko”.

Gaiak kolektibo honen bizi-kalitatean bete betean eragiten baitu. Horregatik diote Atzegitik, kolektibo honetako kideak “ahalik eta autonomoenak izateko, berebiziko garrantzia du mundua ondo ulertzeko aukera izatea”.



Euskarri anitzekin plazaratu du Atzegik sentsibilizazio kanpaina berria. Eskualdeko aurkezpena Lasarte-Orian egin zuten urriaren 2an. Informazio gehiago atzegi.eus atarian.

Honenbestez, guztioi hausnartu eta urratsak ematera gonbidatzen gaituzte. “Pertsona bakoitzak, bere lan edo ingurune pertsonalean aldaketa txikiak egiten baditu, ziur gaude mundu irisgarriagoa eraikiko dugula”.

15.223 kide ditu Atzegik

-Buruntzaldean: 163 familia, 102 kolaboratzaile eta 541 atzegizale.

-Orohar: 2.188 familia (2.279 adimen desgaitasuna duten personak), 2.571 kolaboratzaile, 10.464 atzegizale.

Laburrean

Zorione Mendezen erakusketa

“Marrak” izeneko bere marrazki bilduma ikusgai jarria du Lasarteko Okendo plazako Mercero aretoan, urriaren 27ra arte. Asteburuetan izango da zabalik erakusketa: ostiraletan 17:00-20:00 artean. Larunbat eta igandeetan: 12:00-14:00/17:00-20:00.

Ziortzak, ikasturte berria martxan

Urriaren 11rako iragarri dituzte lehen saioak, 19:30etan DBH1-ekoekin eta 20:30etan DBH3koekin. Urriaren 25erako iragarri dituzte DBH 2 eta 4koekin lehen saioak. “Egon zaitezte adi gure sareei ordua jakiteko. Animatu zaitezte!”.

KzGunera datozen ikastaroak

Urriaren 9:00-13:00 artean zabalduko dute. Hurrengo ikastaroak: urriaren 23-24an, 9:00-11:00 artean, “WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean”; urriaren 25etik 28ra, 9:00-11:00: “Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak”.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96


ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Deskonektatzeko garaia

Komunikaziorako sareak gero eta zabala-goak dira. Eta gero eta urrutiago iristen dira. Muga denak ganditu direla esan daiteke. Gailu eta sare ugari ipini dizkigute eskura, horretarako propio. Interkonektatzeko eskaintza infinituraino biderkatuz. Mundu birtualaren bentajak. Etengabe online egoteko joera honek ordea, badu B alderik. Aurrez aurreko harremanari uko egin eta isolamenduan erortzeko arriskua. Horretara goaz. Gero eta arinago. Mundu birtualaren desbentajak.

Bertatik bertara egonda ere, mezu labur bidez harremanatzen gara orain. Whatsapp belaunaldian bilakatu ote gara? Telefono deiak gero eta gutxiago egiten ditugu. Aurrez aurrekoari gero eta

beldur gehiago diogula dirudi. Horregatik, harrigarria bezain deigarria egin zitzaidan duela gutxi jaso nuen proposamena. Donostiako Tabakaleratik esperimentu moduko batean parte hartzera gonbidatu ninduten. Labur esanda, hau zen proposamena: ezezagunak zaizkidan pertsonekin mahai baten bueltan elkartu, 20 bat minutuz solasean aritzeko xedez.

Giza liburutegia, sorkuntza askatasunean? izenburupean, sorkuntza arloko hainbat lagun batu ginen Tabakalera. Zinegileak, idazleak, kantariak... 12 bat “sortzaile” elkartu ginen, Bakeolak eta Donostiako Kultura Garaikideko Zentroak elkarrekin antolatutako ekitaldian.

“Giza liburutegia” delako kontzeptua Kopenhaguen sortu zen 1993. urtean. “Ezagutza

eta esperientzia partekatuen bidez, elkarrizketa eta ezaguera suspertu nahi duen mugimendua da”, antolatzaileek aditzera eman zigunetez. “Egungo bide berrien aurrean, proiektu hau pertsonetan eta beraien bizipen, esperientzia eta ezagutzaren bidez sortzen diren harremanetan oinarritzen da”.

Giro goxo batean, eta 20 bat minutuz, hiruzpalau lagunekin solasean aritzeko aukera izan genuen. Sortzaileak eta entzuleak, aurrez aurre, bizipenak eta esperientziak elkar trukatzeko. Hiru txanda ezberdinetan hartu nuen parte. Txanda bakoitzean ezberdinak izan ziren entzuleak baina denetan jarrera berbera errepikatu zen: hurkoa errespetuz entzun eta entzundakoari segida eman. Mahai baten bueltan, sortzaileak eta entzuleak parez pare,

denak maila berean.

Gai jartzaileak bertsolariei nola, hau izan zen ipini ziguten abiapuntua: *sorkuntza askatasunean?* Hitz gutxitan, “indarkeriak garaian, sortzeko izan (edo izaten ditugun) baldintzen inguruan jardutera gonbidatu gintuzten: presioak, jazarpenak, zentsurak, autozentsura, bazterketa, beldurak, kontraesanak...”.

Gaiak joko asko eman zuen eta sortzaileen profilak diferentek zirenez, solasaldiak ere anitzak izan ziren. Dena den, formatua bera izan zen aipagarriena nire ustez. Bere sinpletasunean, honetaz eta hartaz jarduteko aukera eskaintzen du. Telefonoak itzali eta gehiagotan elkartu beharko genuke, mundu birtualeko lagun ezezagunok.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegoza | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Energiaren inguruko jardunaldiak abian

Antonio Aretxabala geologoak urriaren 4an Potxoenean eskainitako “Petrolioaren gailurra eta bere ondorioak” saioan, kapitalismoak aldaketa klimatikoan duen eragina aztertu zuen, asteotarako iragarri diren energiaren inguruko jardunaldien baitan:

“Toki-esperientziak energian: Zubieta eta Ispaster proiektuak. Energia Berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak”.

Azaroak 8, ostirala

■ 18:00 Hitzaldia Potxoenean. “Usurbilgo autohornikuntza azterketa”. Hizlaria: Jesus Calvillo.

Urriak 18, ostirala

■ 19:00 Hitzaldia Potxoenean: ■ Antolatzailea: herritar taldea.



Amaitu egingo diren baliabide naturalak eraldatu eta beste energia mota batzuk indartzeko deia egin zuen Antonio Aretxabalak, Potxoeneko solasaldian.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Kinto bazkariak ospatzeko garaia

Auskalo zein den fenomeno honen atzean dagoen arrazoi ezkutua. Datozen egunetarako deialdiei begira behintzat, argi dago haxe dela kinto bazkariak ospatzeko garairik oparoena.

Urriaren 12an, 1979ko kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa izan eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Urriaren 19an, 1955eko kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute. Añana Gatzaga bisitatu, Ner-



Bi asteko epean bost topaketa ezberdin antolatu dira. Argazkia: @scottiewarman

bioi saltoa ikustatu eta Urduñan bazkaldu. Aurrekontua, 65 euro inguru. Izena eman iraila bukatzerako, erreserbak garaiz egiteko. Maribi (675 006445), Patxi (615760458). Edo email: 1955usurbil@gmail.com

Urriaren 26an, 1952ko kinto bazkaria

1952an jaiotakoak urriaren 26an larunbata Saizarren bilduko dira bazkaritarako.

Izen emateko epea urriaren 19ra arte dago irekita:

620516715 (Javier).

Urriaren 26an, 1946an jaiotako bazkaria

Urriaren 26an bilduko dira Antxeta jatetxean. Bertaratu nahi duenak aurrez eman dezala izena, 943 36 34 48 (Laurok) telefono zenbakira deituta, urriaren 20a baino lehen.

1969an jaiotakoak, urriaren 26an Atxegan

12:30etan Guria tabernan elkartzeko dira. 13:30etan argazkia aterako dute Artzabalgo plazan eta 14:30etan bazkaria Atxegan. Izen ematea, urriaren 18a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3008 0259 17 40382 18121 (Rural Kutxa).

Ika-mika

Aldaketaren alde, apustu

Dieta eta Osasunari buruzko Europako Ikerketa Prospektiboan (EPIC), Eusko Jaurlaritzak bigarren faserako gonbidapena egin du: *Bisfenol-Arekiko espazioaren eraginak osasunean*. EPICek orain proposatzen du ebaluatzeko zein erlazio dagoen konposatu kimiko baten (bisfenol-A) eta minbizia edo Gaixotasun Koronario Iskemiako garatzeko arriskuaren artean.

Orain gutxi artikulua batean irakurri dut: “Espainian, nahiz eta botilako litro urak iturrikoak baino 400 eta 1.000 aldiz gehiago balio, Europako laugarren eta munduko seigarren herrialdea gara, ur hila kontsumitzen. Urteko eta pertsonako 140 litro horiek eragiten dute

segunduro 1.500 plastiko botila zaborretara edo landara botatzea, eduki toxikoekin; bisfenol A (BPA) eta antimonioa, kasu”.

EAEn, ahartzeko ura edangarri egiten dute fluorarekin. Gainontzeko tokietan sodio hipokloritoarekin (lejia), Cordoban eta Andorra bezalako gertuko lurraldeetan izan ezik; hauetan, kloro dioxidoarekin (sodio kloritoa-MMS), ura edangarri egiteko disolbagarriagoa eta patogenoak hautatzeko eraginkorragoa dena, eta dosi txikiagoak behar dituzenez, gastuak, zaporea eta osasunean onurak hobetzen dituen. Biozida ez kaltegarri hau indartsuagoa da, trihalometano (THM) beldurgarriak eta fenolak ezabatzea bermatzen baitu, eta horregatik era-

biltzen da ospitaleetako gela eta tresneria esterilizatzeko.

2008an gobernu britainiarak iturriko uraren kalitatea hobetu zuen, eta era berean, debekatu egin zuen bulego ofizialetan, jaialdietan eta ekitaldi publikoetan plastikozko botilako ura edatea, kaltegarria, inmorala eta ez solidarioa irizten diolako.

2013an Frantziak debekatu egin zuen Bisefonol-A plastikozko ur botiletan, petroliotik eratorritako substantzia oso toxikoa delako.

Aurrekari horiekin, Eusko Jaurlaritzak eztabaida publiko ireki behar luke, ahartzeko plastikozko ur botilak gutxitzearen alde, eta aurretik, bermatu, etxe eta iturri publikoetan gure uraren zaporea eta osasungarritasuna, gaur egun

fluorazioarekin ez baitago bermatuta. Edangarria egiteaz gain, osasungarri eta bizia egitea izan behar litzake datorren hamarkadarako bere apustua.

Energia aurreztu eta gutxitu eta Zero Zabor filosofiarekin bat egiten duen ekonomia zirkularraren aldeko zaborren tratamenduari lotutako irizpideengatik ezin dugu atzeratzen utzi plastikoari eta osasunari lotutako iturriko uraren arazoa.

Ekoetorkizuna: Plastikoari EZ. Mundu mailako mugarriz litzateke, Usurbilgoa bezalako Euskal Herriko zenbait udal-txetan ingurumenaren aldeko praktika onen alde, hondakinen gaiari lotuta... Zuzenean eragiten digu.

Iulen Lizaso

Garapen agentzia sortzeko aurrerabidean

Buruntza Beterrikoa da Gipuzkoan, garapen agentziarik ez duen eskualde bakarra. Bide horretan hainbat urrats eman dituzte azken urteotan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek. Esaterako, izaera juridikorik ez duen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2017an sei udalerririk. Ordutik, enpleguaren alorreko egitasmoak bideratzen aritu dira eta hitzarmen honi izaera juridikoa emateko batzorde kudeatzaile bat lanketa betean dela gogorarazi zuen Agurtzane Solaberrieta alkateak, joan den irailaren 26an egin zen udalbatzaren osoko ohiko bilkuran. Lan talde horrek mankomunitate bat sortzea hobetsi zuela.

Bide horretan, mugari garrantzitsutzat jo zuen aurreko legealdi amaieran, martxoko plenoan udalbatzak hartutako erabakietako bat; lankidetzaren



Buruntza Beterrikoa da garapen agentziarik ez duen eskualde bakarra.

UDAL ORDEZKARIA

“Mankomunitatea sortzeko Batzorde Sustatzaile bat osatu da. Udal ordezkaria Beñat Larrañaga Urdanpilleta zinegotzia izango da”

honi mankomunitate izaera emateko sortze prozesuan parte hartzea erabaki baitzuen.

Mankomunitatea sortzeko Batzorde Sustatzaile bat osatu da eta azken asteko osoko bilkuran, aipatu batzorde horretan Udalak izango duen ordezkaria Beñat Larrañaga Urdanpilleta zinegotzia eta haren ordezkaria alkate Agurtzane Solaberrieta izendatzea onartu zuen legealdi amaierara arte. Gehiengo osoz, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ-ko ordezkariak abstenitu ziren.

Komunikazio arduradun berria du Udalak

Udal aurrekontuekin batera onartu ohi ditu udalbatzak, udal plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda. Duela bi asteko osoko bilkuran, bietan aldaketa bana txertatzea erabaki zuen udalbatzak. Udal komunikazio instituzionalaz arduratuko den langile berria kontratatu dute, eta horrek eragin ditu aipatu aldaketok, zereginotarako “langilerik ez zegoen eta egun” alkate Agurtzane Solaberrietak azken plenoan gogorarazi zuenez. Eta presa zuen langile bat kontratatzeak, ezinbestekotzat jotzen baitu udal gobernu taldeak herriko etxeari lotutako informazio guztia herritarrei helaraztea. Udalaren “lan ekoizpen jarduerara maila izugarria da” gainera, alkatearen esanetan.

Horretarako, “behin-behine-

ko izendapen bitartez aipatu postua sortzeko beharra ikusi da, konfiantzazkoa”, nahiz udal gobernu taldetik nabarmendu nahi izan zuten, komunikazio instituzionala jorratuko duen. Solaberrieta bera izan zen hain zuzen, aurreko legealdian udaleko komunikazio arduraduna. Lanaldi osoan ariko da langile berria. Udal webgunea (usurbil.eus), sare sozialak kudeatuko ditu. Aurreko legealdian kaleratzen hasitako Udalberri aldizkaria plazaratzen segiko dute eta haren ardura izango du. Lanpostuaren maila, soldata finkatzerakoan EHBilduren soldata taula hartu dute kontuan, udal gobernu taldetik aditzera eman zuten.

Aldaketa honen alde bozka-

tu zuten azken plenoan, EHBilduk eta PSE-k. EAJ aurka agertu zen. PSE-ko zinegotzi Francisco Suarezek zioenez, “oso ados nago udalbatza honen, ulertzen baitut oso garrantzitsua dela komunikazioa, informazioa objektiboa izango delako”. EAJ proposamenarekin desados agertu zen. “Ez dugu esaten 6.000 biztanleko herri batek behar ez duenik, baina gehiegitxo iruditzen zaigu lanaldi osoko lanpostua sortzea”.

Udal gobernu taldetik komunikazio arduradunaren egunerokoa ezagutzera gonbidatu zuten EAJ, “ziurtatzen dizut baietz, behar dugula” zioen alkate eta aurreko legealdiko komunikazio arduradun Agurtzane Solaberrietak.

Araudi aldaketa, Atsobakarreko kirol egitasmoa bideratzeko

Lasarte-Oriako Udalak kirol azpiegitura berria eraiki nahi du Atsobakar eremuan, Urbil merkatalgunearen ondoan. Udal gobernu taldetik azken osoko bilkuran zehaztu zuten, tartean, atletismo pista bat gradekin. Proiektu hau aurrera eramateak ordea “Usurbilgo arauari eragiten die”, eremu horretako arau subsidarioetako bi exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren antolamendu xehatuaren aldaketa hasieraz onartzea. Eta honenbestez onespina eman behar dio udalak proiektuari.

Aho batez onartu zuen udalbatzak. Espediente hau 20 lanegunez jendaurrean jarriko da alegazioak aurkezteko. Eta hartutako erabakia Lasarte-Oriako Udalarik jakinaraziko zaio, honakoa adieraziz. “Aldaketa-espedientea tramitatzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak Lasarte-Oriako Udalarik eskatuko dio ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea”.

Datorren plenoa, ezohikoa

Urriaren 17rako ezohiko osoko bilkura deituko dute. Udal gobernu taldetik iragarri dutenez, ordenantza fiskalen gaia eramango dute hitzordu honetara. Saio berean, azaroaren 10erako deituak dau den Espainiako Gorteetako hauteskunde egunez, hautesleketan lan egitea egokituko zaien mahaikideen zozketa egingo da.

Epaia kaleratzean mobilizatzeko deia

Aldizkari hau inprentara bidaltzeko garaian, zehazteke zegoen noiz plazaratuko duen Espainiako Auzitegi Gorenak, Kataluniako buruzagi independentisten aurkako epaia. Lehenago ez bada, aste honen amaieran bertan izan daiteke. Une hori heltzean, greba orokorra, martxak eta mobilizazio gehiago iragarri dituzte Katalunian.

Elkarretaratze zaratsua

Adi egoteko oharra zabaldu du Usurbilgo Gure Esku mugimendua. Kaleratzeaz dute Kataluniako buruzagi independentistek lotutako epaia eta “ezinbestekoa da mobilizatea. Gure eskubide eta askatasunak ere jokoan dau-



Usurbilgo Gure Eskuk, “erreferenduma ez da delitua” aldarrirpean Gaztañaga inguruan eseki duen kartela.

de!”, ohartarazi du erabakitze eskubidearen aldeko mugimendua. Epaia plazaratuko den egunari adi egoteko eskatzen du Gure Eskuk. “Epaia jakiten den

egunean Mikel Laboa plazan elkarretaratze zaratsua egitea da asmoa. Egunean bertan zehaztuko dugu ordua”, ohartarazi dute.

Herri-merkataritza plana eguneratzera

Legealdi honetan lehenbiziko aldiz, Udaleko, Hurbilago Elkarreko eta Siadeco-ko ordezkariak osaturiko merkataritza mahaia bildu zen joan den urriaren 3an Potxoenean. Gai ezberdinak hartu zituzten ahotan, baina nabarmentzeko moduko egitasmo bat, udal iturriek NOAUA!ri aditzera eman diotenez; estreinakoz 2009an landutako herri-merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plan berezia eguneratu asmo dute.

Hamar urteotan, “hainbat alorretan izan diren aldaketak behatu nahi dira -esaterako, kontsumo ohituren aldaketa, Internetez eta saltoki handietan kontsumitzeko joeraren gorakadagatik. Bestetik, aurrera begira herri-merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko zein bide jorra daitezkeen aztertu nahi dute. Horrela, eskaintzaren, eskariaren eta epe ertaineko balizko garapenaren diagnostikoa egingo dute: azterketa horren emaitzen arabera, lau urterako ekintza plan bat zehaztuko da”. Faseka gauzatuko den lau hilabeteko prozesua



Merkataritza mahaiaren Potxoeneko bilera. Irudiaren egilea: Udala.

izango da. Herriko jarduera komertziala dinamizatzea izango du helburu nagusia, “Usurbilgo merkataritzak eskaintzen dituen aukerak eta indarguneak baliatuz, batetik, eta horren garapena oztopatzen duten arloen eragin negatiboak ahalik eta gehien murriztuz, bestetik. Egitura publiko-pribatuak sortzea da asmoa, eragileen arteko kolaborazioa sustatzeko. Horrez gain, genero berdintasunerako irizpideak kontuan hartuta egingo da prozesu guztia”.

Lehenbizi Jarraipen Batzordea osatuko dute aipatu mahaiak eragileek. Diagnostika osatuko

dute, sektoreko nahiz hortik kanpoko herritar eta eragileekin izandako elkarrizketa eta eztabaida taldeetatik.

Informazio kuantitatiboa bildu ostean, jasotako datu guztiekin “herri merkataritzaren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak ikertuko dituzte”, Udalaren esanetan.

Jendaurreko aurkezpena

Hortik abiatuko dute Jarduera Planaren diseinu lana. “Ardatz estrategikoak eta ekintza zehatzak finkatu ostean”, jendaurrean aurkeztu eta herrian gizarteratuko dute.

Maddalen Iriarte,

EHBilduren batzarrean

Ikasturte politiko berriko erronkak oinarri sozialarekin partekatzeko herri batzarra deitu du Usurbilgo EHBilduk urriaren 15ean, 19:00etan Potxoenean. Ekitaldira, koalizioako Gasteizko legebiltzarkide Maddalen Iriarte gonbidatu dute. Besteak beste, koalizioaren egituraketa eta azaroaren 10eko hauteskundeak hartuko dituzte ahotan.

Txokoalde hobetzeko parte hartze prozesua

Auzoko bizitza hobetzeko Udala eta auzotarren arteko parte hartze prozesua has-tekoak ziren urriaren 9an 19:00etan Akerra Gaztetxean. Hiru lan saio egitea aurreikusten dute. Akerra auzo bizitza hobetzeko tresna bilakatuko duen proiektua definitu nahi dute.

Zubietako hitzarmenari buruzko herri bilera

Urriaren 21ean hainbat aldaketa jarriko dira indarrean, zubietarrek jasotzen dituzten zerbitzuetan; besteak beste, hondakinak Usurbilgo Udalak bilduko ditu, ur horniduran ere aldaketak datoz, eta tasak nork bere udalerrian ordaindu beharko ditu. Zubietako Herri Batzarrak, eta Donostia zein Usurbilgo Udalek martxoan adosturiko hitzarmenari buruzko xehetasunak emateko, herri bilera deitu dute urriaren 10ean 19:00etan Kaxkapen.

Airearen kalitatearen ikerketa aurkezpena

Gai honi buruzko azterlana egitea eskatu zion Udalak Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari. Maiatzean eta ekainean eginiko neurketen emaitzak aurkeztuko dituzte aipatu unibertsitateko eta udal ordezkariak urriaren 16an 19:00etan Potxoenean.

M.J. Etxeberria: “Usurbilgo elizako dorrea ikaragarri gustatzen zait”

Natura izeneko argazki bilduma ikusgai jarri du Maria Jesus Etxeberria usurbildarrak Sutegin hilaren 18ra arte. Duela urte gutxi batzuk hasi zen argazkilaritzan murgiltzen eta hainbat erakusketa jarri ditu ordutik.

NOAUA! Paisaiaren gaineko argazkiak ateratzea duzue gustokoan edo erretratuak eta halakoak ere egiten dituzue?

Maria Jesus Etxeberria: Gustuko dut natura; bai zuhaitzak, bai eguzkia, ibaiak, loreak, ilargia, animaliak... Gustatuko litzaidake erretratuak egitea ere.

Zer erakutsi nahi duzue erakusketarekin?

Eguzkia da naturaren oinarrietako bat; zuhaitzak, lainoak, ibaiak, behe lainoa, animaliak, loreak, euria, elurra... hori guztia barnebiltzen du. Kaleaz gain, herri eta hirietatik urrunduta topatzen ditugun elementuak bildu ditut. Horri guztiari deitzen diot nik natura. Bilduma honekin, Usurbilez gain, Zizurkil, Orio, Zarautz eta Zumaiako argazki bana dago, bai eta Aieteko jauregiarena ere. Inguru hauek paisaiak agertzen dira.

Argazkiak atera bai, baina editatu ere zuk zeuk egiten dituzue?

Gehienak ateratzen diren bezala uzten ditut. Bakarren bati zuzenketaren bat egiten diot oker ateratzen bada edo. Kolorearen aldetik eta ez dut ezer egiten, ateratzen diren moduan argitaratzen ditut. Filtro be-



Sutegin erakusketa bisitatze ordutegia: astelehenetik ostiralera, 16:30-19:00 artean eta larunbat eta igandeetan, 11:30-12:30 artean.

MARIA JESUS ETXEBERRIA
“Filtro bereziak erabiltzen ditut argazkiek kutsu artistikoa hartzeko”

reziak erabiltzen ditut argazkiek kutsu artistikoa hartzeko, eta nire kamerak ateratzen dituen hodeiak asko gustatzen zaizkit. Kolore berezi eta intentsoa lortzen du.

Hemendik kanpo beste nonbait jarriko duzue erakusketa?

Beste argazki batzuk jarriko ditut Zarauzko Euskalduna tabernan. 16 bat argazki prestatuta dauzkat, baieztapenaren zain nago. Egunsentia eta ilunabarrenaren gainean egindako bilduma da. Elizako dorrearen bueltan kokatzen dira argazki asko, zeruaren kolorea eta dorrearen argien aldea erakusten du. Azaroa hasieran jarriko dut.

Iaz “Eguzkia eta argiaren indarra” erakusketa jarri zenuen.

Zer duzue gogoan erakusketa haren gainean?

Usurbilgo elizako dorrea ikaragarri gustatzen zait, Usurbilgo lekuri ederrena da. Horren gainean egin nuen bilduma hura. Itzal eta marra politak sortzen ditut eguzkiak bertan.

EITB-ren “Eguraldia” saiora sarri bidaltzen dituzue argazkiak. Jendeak horregatik badaki nor zaren?

Duela gutxi Andoainen izan nintzen eta hango eliza ikusi nuen. Oso dotorea iruditu zitzaidan eta bost bat argazki atera nizkion. Egun horretan, telebistan jarri zuten haietako bat. Argazki politen bat ateratzen dudun bakoitzean bidaltzen dut. Jendeak ikusten ditut eta askotan galdetzen didate kalean ea argazkirik bidali dudun. Beti esaten didate bidaltzeko, zain egoten direla eta. Duela zenbat urte programa bat egiten zuten, ez EITB-n, “Eguraldia 24 ordu” telebista katean. Bertan argazkiak bidaltzeko eskatzen zuten

txapelketa bat egiteko. Hor nire argazkiak argitaratzen hastera animatu nintzen. Txapelketa horretan argazki kamera bat tokatu zitzaidan. Jada horrenbeste erabili dut, zaharkitu samar geratu zait. Lainoen argazkiak oso ongi ateratzen zituen kamera hark. Orain darabilkidanak koloreak asko indartzen ditu.

Argazkilaritza betidanik izan duzue gustoko edo duela gutxi kontua da?

Duela bost bat urte hasi nintzen argazkiak ateratzen. Lehenago ere tarteka argazkiren batzuk ateratzen nituen, baina ez nukan horrelako jakinmin berezirik.

Ikasketak egin zenituen argazkilaritzaren gainean?

Ikastaro bat egin nuen eskuz kamera erabiltzen ikasteko. Berezi samarra da modu horretan kamera erabiltzea. Zaila iruditu zitzaidan oso. Jakitea garrantzitsua da; baina zaila. Nik argazkiak modu artistikoan edo automatikoan ateratzen ditut. Askok gustatzen zait nola geratzen diren ateratzen ditudan moduan.

Proiektu gehiago badituzue?

Zarauzko erakusketaren ondoren zer egin pentsatzen hasi beharko dut. “Eguraldia” saiora argazkiak bidaltzen jarraituko dudala hori ziur. Agian beste argazki mota batzuk ateratzen hasiko naiz, erretratuak edo argazkiak zuri beltzean.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



EGUNEKO MENUA KARTA
 PLATER KONBINATUAK
 OGITARTEKOAK · TOSTAK
 MENU BEREZIAK

ARTZABAL
 BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



JOSEBA TAPIA

ZUZENEKO DISKOAREN
GRABAKETA
USURBILEN

Urriak 25
Sutegi 20:00 eta 22:30

SARRERAK: 10€ aldez aurretik
Usurbilgo Bordatxon, Txirristran
Lizardin eta Noaualn eta egun berean 13€ Sutegin

Argazkia: Kepa Gonzalez

noaqua

EUSKAL JAIA '19

URRIAK 19, LASARTE-LORIA



9.30 DIANA

11.00 KANTU DANTZA JIRA TXIKIA

11.30 PATATA TORTILLA lehiaketa

12.00 BIZKOTXO lehiaketa

12.30 SAGARDO DASTAKETA

14.00 HERRI BAZKARIA Okendo Plazan.
Txalapartariak, bazkaloste umoretsua, musika...

Ondoren:

- Haurren pilota jokoa.
- Haur eta gaztekoentzako herri kirolak.

17.00 "HARRI JASOTZEA"
Udane eta Joseba Ostolaza eta Beñat Telleria

18.00 ERROMERIA Soinuz Bial

19.30 TXARANGA BERTSO ETA PINTXO POTEA
Gaintxe in deu txaranga eta bertsolariekin.

21.30 HERRI AFARIA Okendo plazan

GAUEAN musika kale eta tabernetan

00.00 EUSKAL OLIMPIADAK

11.00-13.30 eta 16.30-19.00 bertako produktuen, eskutanen eta bestelako salgaien AZOKA egongo da Okendo plazan.

**ZATOZ
BASERRITAR
JANTZIAREKIN!**

* Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Orlarre-Landaberrriko estaldan egingo dira.

PARTE HARTZAILEAK:
TIKUN KULTUR ELKARTEA, GAZTE KLUBA, KUKUKA, ERKETZ, PLAZA DANTZAKO LAGUNAK, XUMELA, TTIIRRIKA TIARRIKA, TXISTULARIAK, TXALAPARTARIAK, OSTADAR, INTZA KIROL ELKARTEA, HARRIASOTZAILEAK, DAINTXE IN DEU TXARANGA, BERTSOLARIAK, SORGIN JM&K, ADK EUSKALTEGIA

LAGUNTZAILEAK:
ZABALETA ALZOLAN, JALGUINE, INTZA ELKARTEA, BERASATEGI KAFEAK, OGI BERRI, CECILIA FRUTA-DENDA



Joseba Tapia: “Zuzeneko grabazioak beste grazia bat izaten du”

1998an ekin zion bakar-kako ibilbideari. 20. urteurrenean, jaialdi gogoangarria eskaini zuen Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ospakizunak jarraipena izango du Sutegin. Urriaren 25ean zuzeneko diskoa grabatuko du bertan. Bi emanaldi iragarri ditu. Deialdiak jakinmina piztu duenez, badaezpada, sarrera aldezkarekin eskuratzeko komeni.

NOAUA! Apoaren edertasuna diskoarekin bakarkako ibilbideari ekin zenion 1998. urtean. 20. urteurrenean, talde berri batekin igo zinen Victoria Eugenia Antzokiko oholtza gainera. Sutegin eskainiko duzun emanaldia ere ildo berekoa izango al da?

Joseba Tapia. Talde eta proiektu berri bat aurkeztu eta grabatuko dut Sutegin. Victoria Eugenia abiatu zen baina geroztik aldaketa asko izan ditu bai musikarietan, bai moldaketetan. Errepertorioa ere ezberdin antolatu dut. Hogei urteko ibilbide diskografikoa egin ondoren etorri da kezka eta gogo hau, herri musikarekiko kezka bat. Eta honenbestez nire zortzigarren diskoa izango da Joseba Tapiaren izenean aurkeztuko dudana. Hasi Tapia eta Leturia garaitik eta bakarkako egindako konposizioekin osatua egongo dena. Sorpresa taldeak berak emango



Urriaren 25ean ostirala, Sutegin arituko da Joseba Tapia. Musikari ugari izango ditu alboan.

JOSEBA TAPIA

“Tapia eta Leturia garaitik hasi eta bakarkakoetan egindako konposizioekin osatua egongo da errepertorioa”

du, eta moldaketek.

Urteurrenek atzera begiratzeko aukera eskaintzen dute. Dena den, zurea ez da nostalgia ariketa huts bat izango, ezta? Inoiz barkaka grabatutakoak talde baten laguntzaz plazaratuko dituzu. Zein neurritaraino eraldatu behar izan

dituzu kantak?

Ez dut lehengo formularik errepikatu nahi izan. Kantuek bizi berri bat hartzen dute beste norbaiten ahotsean jartzen badituzu, adibidez. Eta horrela bertsio berri horrek bultzada ematen dio zure kantuari. Nire kasuan nik neuk egin diot, eta egin izan diot aldaera berria nire buruari ere. Adibidez Tapia eta Leturiarekin grabatu genuen *Maitatzen zaitudalako* kantua. Tikitixa kantu bat, tarteko pasarte musikaletan berrikuntza zekarrena, testuan bezainbat. Beranduago Tapia eta Leturia Band-en, geronek egin genion erabat

beste muturreko aldaera. Gero zein izango den gustukoen, entzulearen belarriaren arabera izango da. Baina bitartean sormenean eta lanean jarraitu dugu.

Bakarkako ibilbidearen ospakizun kolektibo honetan, zeintzuk izango dira alboan izango dituzun musikariak?

Tronpetan Jon Celestino, saxoarekin Ibon Irixoa, tronboiarekin Asier Ituarte. Koroetan: Leire Berasaluze, Kristina Aranzabal eta Nerea Erbiti. Teklatuetan Jexux Aranburu “Txus”, baxu elektrikoan Iñigo Telletxea eta jazzpanarekin Iker Uriarte.

“Esan liteke zuzeneko talde bat garela”

NOAUA! Zuzeneko disko bat grabatuko duzu Sutegin. Zein neurritan baldintzatuko du kontzertuaren errituala?

Joseba Tapia. Nik uste dut tentsio gehiago egoten dela zuzeneko grabatzen ari garela jakinik.

Jendeak estropezua gehiago sentitzen du. Beharbada guk geuk baino gehiago. Zerbait historikoa gertatzen ari delako sententzia izaten da. Bestalde, zuzenekoak izaten du, estudiokoarekin konparatuta, bes-

te grazia bat, nahiz eta soinua hain borobila ez izan. Batzuk freskotasuna deitzen diote horri eta horregatik maite dituzte gehiago zuzenekoak. Beste batzuetan kontrako gertatzen da. Gure diskoak ez dira tekno-

logia eta pregrabatu askokoak izaten. Tranpa gutxikoak, alegia. Esan liteke zuzeneko talde bat garela eta komunikazioa akustikoan lortzen dugunez, jendeak eskertuko duela ziur naiz.

“Lan egin beharko dugu jendearen egarria pizteko, baina ziur gaude lortuko duguna”

NOAUA! Zuzeneko diskoa grabatzeko bi saio eskainiko dituzu Sutegin. Durangoko Azokarako plazaratzeko asmoa al duzu? Eta zein euskarritan?

Joseba Tapia. Oraindik ez dugu CD-a ez den beste euskarri fisikorik aurkitu behar besteko pisurik duenik. Biniloa ere hortxe dago baina oraindik oso bitxizaleentzat egina dela esango nuke. CD-a ere halatsu dela esango duzue, baina gure sorkuntzak aurkezteko behar dugu zerbait. Gehienek Spotify-n entzungo dute seguruen oso praktikoa delako eta ia musika denak bertan daudelako. Guk ere han jartzen ditugu gure musikak nahiz eta hortik oso diru gutxi etortzen zaigun bueltan.



“Euskaraz ari garen talde gehienoi bezala guri ere garai batean baino askoz gehiago kostatzen zaigu eskaparatean egotea”. Hala ere, horrek ez dio lanerako gogoia kentzen.

Urteurrena balantzea egiteko garai egokia izan ohi da. Iaztik hona emanaldi batzuk eskaini dituzue talde bezala. Gehiago ere badituzue begibistan. Grabazioa eta gero jarraipenik izango al du formatu honek?

Oraindik arrankean gaude eta euskaraz ari garen talde gehienoi bezala guri ere garai batean baino askoz gehiago kostatzen zaigu eskaparatean egotea, eta beraz, lan egin beharko dugu jendearen egarria pizteko. Baina ziur gaude lortuko duguna... Ameslaria ni!

Hurrengo diskoan pentsatzen ari naiz eta jarraipena izango duela ziur. Ez nago amore emateko.

Iaz, herri musika aldarrikatu zenuen hedabideen aurrean. Folklorikotzat edota etnikotzat hartzen dela musika popularra. Dena den, herritarren kezken bozgorailu izan eta badira herri kantak, jakintzaren transmisore, garaian garaiko gertaeren lekuko... Eta gaurko

JOSEBA TAPIA

“Gaur egun erdarazko edo latino musiketara emakumearen gorputz eta sexu esplizitoaren apologia eta erabilera patriarkalak markatzen du ildoak. Eta pixkanaka gure festa giroko erreperitorioa aldatuz doa. Erreferentzia bat utzi nahi genuen, ahalegin bat gure kantutegirako”

kontu asko ulertzeko ere, ispi-lu egokiak izan daitezke, ezta? Kantu berriek beren garaiko munduari edo gizarteari kantatzen diote eta gurean ere horrela da. Termometroa izaten da zer nolako mundutan bizi garen adierazten duena. Lehen hala zen eta gaur ere berdin. Hala ere nire oraingo proiektua kezka batetik sortu da; musika popularraren norabidea ikusirik zerbait egi-

teko gogoia eta beharra sortu zitzaidan.

Gure gazte garaian hala zen, baina orain askoz ere agresiboago sentitzen dut musika komertzialaren eragina. Hor testuaren eta formaren baldarkeria eta zabarkeriak atentzioa ematen du; erdarazko edo latino musiketara emakumearen gorputz eta sexu esplizitoaren apologia eta erabilera patriarkalak markatzen du ildoak. Eta pixkanaka gure festa giroko erreperitorioa aldatuz doa. Erreferentzia bat utzi nahi genuen, ahalegin bat gure kantutegirako.

Ibilbide oparoa osatu duzu bakarka. Tapia eta Leturiarekin eginikoa baino luzeagoa. Dena den, beti izango da Leturiarekin zenuen “duoaz” galdezka hurbilduko zaizunik. Zein neurritan da nekagarri? Zein neurritan da eder?

Atzera begirakoa gazi-gozoa izaten da gehienontzat, gaur egun beste modu batera egingo

genituzkeelako seguruen egin-dako hautaketak. Baina hori ez dago aldatzerik eta ez dago jakiterik asmatuko genukeen ordukoa aldatuz. Baina bestetik, oso sentsazio eta gogorapen onak ere badituz garai haietakoak. Nolanahi, burutazio hauetan ez dut denbora askorik galtzen. Lanean eta ikasten dihardut eta ez daukat denborarik nostalgiarako. Hori zahartzen naizenerako utzia daukat.

Joseba Tapiaren zuzeneko diskoaren grabaketa, bi emanaldi

- Urriak 25 ostirala.
- Ordua: 20:00/22:30.
- Non: Sutegin.
- Sarrerak: 10 eurotan alde z aurretik, Bordatxon, Txirristan, Lizardin edota NOAUA!n eskuragarri. Bestela, egun berean 13 eurotan eskuragarri Sutegin.

Hasi dira sagarrak biltzen sagardo denboraldi berrirako

Euskal Sagardoa jatorri izenetik aditzera eman dutenez, sagarra aurreratu xamar etorri da aurten eta horren ondorioz, irailean sagarra biltzen hasi dira sagasti askotan. Hiru herrialdeetako homologatutako 250 sagasti inguruko sagarra erabiliko da Euskal Sagardoa egiteko eta guztira 5 bat milioi kilo biltzea espero da. Horien artean, Usurbilgo zenbait sagardogile daude.

Aurten sagar urtea aurreikusi zitekeen eta neguko, udaberriko eta udarako giroak, uzta handia eragin du. Sagar asko da beraz, sagastirik gehienetan, eta udan euri dezente egin duenez, alea nahikoa handia eta sanoa. Aurreko urtearekin alderatuta, azukre gutxiago dakar sagarrak orokorrean, eta beraz, iaz baino alkohol gutxiago ekarriko du sagardoak.

Sagastietan, buru belarri

Garai batean "Pilarikatan" has-



Neguko, udaberriko eta udarako giroak sagar uzta handia eragin du.

AURTENGO UZTA

"Sagar asko dago sagasti gehienetan eta udan euri dezente egin duenez, alea nahikoa handia eta sanoa dator"

ten omen zen sagardoa egiteko prozesua, baina heldutasuna aurreratu egin da azken urteetan eta gaur egun iraila eta urria dira bertako sagarrez sagardoa egiteko hilabete nagusiak. Sagastietako lanean buru belarri ari dira sagarzialeak

eta horren eraginez, sagarra behar den moduan eta behar den puntuan biltzea lortzen ari dira. Horrez gain, uzta orekatuagoak biltzea ere badu helburu lanketa horrek, etorkizunean sagarra urtero izateko lortu ahal izateko.

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoian, Urdaira hirugarren

Sagardoa Route, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek bosgarren aldiz antolatu du Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia. Finalurrekoak iraileko lehen bi asteetan egin ziren eta azken larunbatean, Astigarragan izan zen finala.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herriko 20 herritako 43 sagardotegik eman zuten

izena aurtengo edizioan. Petritegi Astigarragako sagardotegiak irabazi zuen lehiaketa, bigarren Lizeaga izan zen eta podioko azken postua, Aginagako Urdaira sagardotegientzat izan zen; hirugarren, beraz. Inguruotako lau sagardotegik hartu zuten parte txapelketan: Aginagak, Urdairak, eta Zubietako Araetak eta Astiazaranek.

Historikoki horrelako txapelketak egin izan dira, 1967tik aurrera zenbait txapelketa herriko antolatu baitzituzten orduko sagardogileen elkarteak, herri desberdinekin elkarlanean.

Sare hori berreskuratzea da asmoa. 2015eko txapelketak ireki zuen ibilbide berria, eta ordutik sistema hobetuz eta herri zein herritar desberdinak

sagardoaren inguruan elkartuz lanean ari dira.

Mahaikideak eseri eta euren lekua hartzen dute afari baten inguruan. Inolako etiketak gabeko sagardoak jartzen dizkiete afariarekin batera hartzeko, eta 5-10 arteko puntuazioak eman behar dituzte. Afariaren ostean egiten da bozketa, eta esan bezala, Urdaira hirugarren izan da aurtengoan.

Salome Portu, Aialde Berri sagardotegia: “Oso sagar ale ona daukagu”

Euskal Sagardoa egiten dute Aialde Berri sagardotegian ere. Euskal Herriko egoera orokorra behin ezagututa, NOAUA!k jakin nahi izan du inertzia orokorrak jarraitzen ote dituen bai sagardotegiak eta baita sagarrak ere.

NOAUA! Sagarrak biltzen hasi zarete?

Salome Portu: Bai, hasi gara biltzen eta sagardotegian sagardoa egiten ere bai.

Nolako sagarra da aurtengoa?

Azukre oso gutxiko sagarrak dira eta alkoholaren graduetan eragin zuzena du faktore horrek. Ez naiz aditua, baina enologoak hori esan digu. Azukre gutxi dutenez, ez da komeni orain biltzen hastea, baina sagar asko jada heldu dira eta jasotzeko moduan daude. Prozesua ahal beste atzeratzea komeni da; presarik gabe. Hori esan zigun behintzat. Sagarrondo nahiko gazteak dauzkagu eta itxura ona du aurtengoak. Oso sagar ale



“Azukre oso gutxiko sagarrak dira aurtengoak eta alkoholaren graduetan eragin zuzena du faktore horrek. Ez naiz aditua, baina enologoak hori esan digu”. Salome Porturen ustez, itxura ona du aurtengo uztak. Argazkia, artxibokoa.

ona daukagu.

Asko jasotzea espero duzue?

Joan zen urtean apenas ez genuen sagarrak izan. Aurten bertako sagar gehiago dauka-

gu, joan zen urtean kanpotik ekarri behar izan genuen bai Galiziatik eta baita Frantziatik ere. Aurten ere zerbait ekarri beharko dugu, gure baserriarekin ez da nahikoa izango

eta. Gu urtarrilean hasten gara denboraldiarekin eta apirilera arte jarraitzen dugu. Txotxean jartzen dugu dena eta gero, maiatzean botilaratzea egiten dugu.

“Sagarrari zukua atera familian” jarduera antolatu dute Sagardoetxean

Europako hainbat hiritan ospatzen den *October Children* proiektuan oinarrituta eta kultura haur zein helduekin partekatzeko helburuz, Astigarragako Sagardoetxeak “Sagarrari zukua atera familian!” jarduera eskainiko du “urriko asteburuetan etxeko txikienekin batera kultur aisialdiaz gozatu nahi duten familientzako”.

■ Datak: Urriak 5, 6, 12, 13, 19, 20, 26 eta 27.

■ Orduetgia: Larunbatetan, 12:00etan eta 17:00etan. Igandetan, 12:00etan.

■ Hizkuntzak: Euskara eta gaztelania.

■ Tarifak: Helduak: 4 euro (bisita gidatua, muztioaren elaborazioa eta muztio nahiz sagardo dastaketa barne). 17 urte bitarteko haurrak: doan

(bisita gidatua, muztioaren elaborazioa eta muztio dastaketa barne).

Erreserbak:

Jarduera honetan parte-hartu ahal izateko, aurrez erreserba egitea derrigorrezkoa da. Harremanetarako:

Telefonoz: 943 550 575
info@sagardoarenluraldea.eus
www.sagardoarenluraldea.eus



Jarduera honetan parte hartzeko erreserba egin behar da aurretik.

Herri afariko antolatzaileak, jaietako omenduak



Festen hasieran omendu zuten aginagar taldea argazkian, Jai Batzordeak emandako opariarekin; haien aurpegiekin Unai Gaztelumendik sortutako marrazkidun xafila eskutan dutela.

Urte luzez jaietako herri afaria sukaldatu eta zerbitzatzen aritu izan den Joxe Mari "Aldapa" eta bere lan taldea omendu zuten Aginagako jaien hasiera ekitaldian eta haiek piztu zuten San Praixkuetako lehen suziria urriaren 4an. "Aurten ere beste urte batez, aginagarron tripa zorriak asetzeko lanetan gogotsu jardungo da. Bere lapikotik irtendako ez dauka sukaldari onenaren in-

bidiarik eta ez diogu sekula hitz txarrik entzun. Berari esker Aginagan zerbait badugu, herri afari oparoak dira", zioten Jai Batzordetik "Aldapari" buruz. Bere lan taldeari buruz honakoa; "hala ere sukaldari on guztiak bezala berak ere talde ona egina dauka. Hauek ere gazteak izandakoak dira, jaiak antolatzen ibiliak, urtero kexarik gabe, Aldapa patroia dutela lanerako prest etortzen direnak".

Urteotako lanagatik eskertu zuten bertaraturikoe txalo artean, omendua izan zen aginagar hamabostekoa: Blanca Bruño, Maribel Bruño, Mertxe Pikabea, Maitane Eizagirre, Nekane Furundarena, Lontxo Zubiria, Marije Elexpe, Iratxe Begiristain, Jose Maria Eizagirre, Anttonio Beloki, Edune Maioz, Olatz Rezola, Juli Arrillaga, Nekane Segurola eta Patxi Segurola. Zorionak!

Joandakoak eta kirolariak gogoan

Txanpainarekin topa egin ez abiatu zituzten festak urriaren 4an Aginagan. Txupinazoa jaurti zen ekitaldian azken urtean herrian izandako ekitaldi eskaintza oparoa errepasatu zuten. Jai Batzordetik ziotenez, "Agiñak potentzia bat izaten jarraitzen du".

Joandakoak gogoan hartu zituzten eta haiei eskainitako isilunea egin zen, "gure herriaren memoria mantentzeko asmoz".

Hilabeteotan nabarmendutako herritarrek ere ahotan hartu zituzten. "Lau goi mailako kirolari ditugu gure artean; Miriam eta Aitor, gure eskupilotari gazteak, poz asko emango dizkiguten arren, festa hauetan frontoia parrandarako bakarrik zapalduko dute. Iñaki eta Josu arraunlariak, denboraldi bikaina egin ostean, datorren asteburuko traineriletan barra izkinean baino planta hobetua emateko gai izango ote dira?". Erantzuna, larunbatean 15:30etan errioko uretan ospatuko den arraun festan.

Gaupasa egunarekin amaituko dira festak

Urriak 11, ostirala:

Umeen Eguna

- 10:00 Umeen jokoaren hasiera.
- 13:00 Umeen bazkari goxogoxoa karpan, mmm...
- 16:00 Puzgarriak.
- 18:00 Txokolate banaketa eta buruhandi bizkor-bizkorak!
- 19:00 Herriko jubilatuen eskutik opari jaurtiketa haurrei, Arratetik plazara, iepa iepa!
- 19:30 Patata tortila txapelketa.
- 20:00 Zezen suzkoa plazan zehar; egin ihes txikito, erreko hau!
- Ondoren, herri poteoa.

■ 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Sarrerak 25 eurotan urriaren 6ra arte salgai Usurbilgo Aitzagan eta Arraten.

- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Rukula eta Andoni Bakarlarria.
- Ondoren, DJ Seymar.

Urriak 12, larunbata:

Gaupasa Eguna

- 12:00 Serigrafia tailerra, "Zatzaizkit"-eko Beñat Iraola-ren eskutik.
- 13:00 II.Tiratxinas jaurtiketa

txapelketa.

- 15:30 Trainerila estropadak erriean: Gizeozkoen X. eta Emakumezkoen IV. ikurrinak. Euskotren Ligako neskak eta Euskolabel Ligako mutilak izango dira hurrenez hurren, etxeko trainerila anfitrioi delarik!
- 18:00 Eriz Magoaren "Auska-lo" saioa.
- 19:00 Elektrotzaranga plazan zehar: Joselontxos.
- 23:30 Kontzertuak frontoian: Liher eta Enkore.
- Ondoren, erromeria: Larrian Gozo.
- 04:00 DJak Eliza Zaharrean

eta karpan.

- 07:30 Errefus-bilketa!

Oharrak:

- Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen ezbeharrez.
- Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, ardura zibilaren aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.
- Eskerrik asko Orioko Arraun Elkarteari, estropaden antolaketan laguntzeagatik.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



Herri Batzarra

USURBIL

Gonbidatua: Maialen Iriarte

*GAI-ORDENA: · Erronka politikoak eta hauteskundeak
· EHBilduren egituraketa*

Potxoenean

Urriak 15 | 19:00

ehbildu

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City * Potxoenea
- * Sutegi liburutegia
- * Zubietako Alamandegia taberna * Aginagako Arrate egoitzan

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik!

tren eta autobus

Ikurriña itzuli zuen alkatea

Francok hil ondorenean, demokratikoki hautatutako Usurbilgo lehen alkate Andres Bruño Urdanpilleta zendu zen asteburuan. 93 urterekin, urriaren 5ean, Aginagan.

Ikurriñaren legeztatzea

Bada alkate zela oroitzeko moduko pasarterik.

Donostia Egunaren bezpera, urtarrilaren 19a, egun seinalatua da herri honen historian. Egund hartan baina 1977an, osoko bilkura berezia egin zuen udalbatzak. Ondoko argazkian dituzue une historiko hartako protagonistak. Andres Bruño alkatea (argazkian zutik, erdikoa). Idazkaria, Roke Arriola. Zinegotziak: Felix Aizpurua, Joxe Antonio Altuna, Joxe Aburuza, Jesus Urkiola, Felix Olasagasti, Joxe Manuel Matxain eta Julian Pikabea.

Udalbatza haren erabakiz, "San Sebastian bezpera hartan, ia 41 urtez ezkutuan egon zen ikurriña berriz itzuli zen Usurbilgo udaletxeko balkoira. Gordean pasatako orduak ez dira berreskuratzen. Baina memoria bai. Ikurriñak memoria due-



41 urteko debekuaren ondotik, ikurriña udaletxeko balkoira itzuli zuen udal ordezkariek taldea, Andres Bruño alkate zela.

lako Usurbilen. Behar zuen eta merezi zuen lekua hartu zuen, eta harrez gero hemen izan du bere tokia, herriko banderarekin batera", oroitu zuten udaletxeko plazan 2013ko maiatzean ikurriñari egin zitzaion omenaldian.

Ospakizun historikoa

Gogotik borrokatu ostean izan zen. Euskal Herriko hainbat alkate batu ziren ikurriña legeztatzeko. Hainbat mobilizazioek eta Euskal Herrian nahiz Madrilgo agintariekin eginiko bilerek beren emaitza izan zu-

ten 1977ko urtarrilaren 18an. Egund hartan, "zigorgabetu" zuten ikurriña, eta Madrildik alkateak eurak izan ziren telefonoz, albiste pozgarria Euskal Herrira zabaldu zutenak. 24 orduren buruan, hilaren 19an osoko bilkura deitu zuen Usurbilgo Udalak. Udalbatzak saio horretan ikurriña legeztatzea erabaki zuen. Eta segituan irten ziren udaletxeko balkoira ikurriña harrotasun osoz asintzera. Plazan jendetza bildu zen, guztiak une historiko hura bizitzera gerturatua.

Gernikan omendua

Azkenekoz, apirila hasieran, Gernikako Batzarretxean ospatu zen lehen udal hauteskundearen 40. urtemugako EUDEL-en ekitaldian ikusi genuen Andres Bruño. Francoren diktaduraren ostean ospaturiko lehen udal hauteskundeetatik 40 urte bete ziren apirilaren 3an.

Demokrazia garaiko lehen alkate izandakoak omendu zituzten egund haietan Gernikako (Bizkaia) Batzarretxean. 224 gizonetzko eta lau emakumezko eta ordutik alkate izandako 2.400 lagun baino gehiago. Tartean, Andres Bruño aginagarra. "Makila, eskuz esku, 40 urtez" aldarripean, "makilaren ondarea" izan zen omenaldiaren haria. Omenal-

di ekitaldian bertan izan zen Andres Bruño senideekin eta Usurbilgo Udaleko ordezkaritza batekin. Orduko alkate Xabier Arregik omenduari esker ona adierazi nahi izan zion. "Andres Bruño Urdanpilletak, Usurbilgo trantsizioko lehen alkateak ondo merezitako aitortza eta omenaldia jaso du. Ohore handia izan da une hau Andresekin partekatzea, eta beraz, gure partetik usurbildarron izenean ere aitortza, zorianak eta esker ona adierazi nahi diogu Andres Bruñori".

Aitortza eta esker ona

Bruñorentzat berezia den lekuan egin zioten omenaldia, Usurbilgo alkateak gogorazi



Xabier Arregi Andres Bruñorekin, Gernikako batzarretzeko omenaldian. Irudiaren egilea: Udala.

zuenez. "Izan ere gerra garaian hemen egotea egokitu zitzaion eta berak kontatzen duenez, hegazkin batek ametrallatu zuen. Berak dio txiripaz atara zela bizirik. Beraz Andres Gernikan gertatutakoaren lekuko bizia da, gure historiaren pasarte beltzenetako baten lekuko bizia", Arregik omenaldi egunean oitarazi zuenez.

Udala: "Usurbilek ez du inoiz ahaztuko gugatik egin zenuen lana"

Andres Bruñoren heriotzaren berri izan eta berehala familiari doluminak helarazi zizkion egungo Udaleko alkate Agurtzane Solaberrietak. Aurreko legealdian, Udaleko komunikazio arduraduna zela, Bruñori EUDEL-ek apirila hasieran Gernikako Batzarretxean eginiko omenaldian atera zion Solaberrietak Andresi, bere jendaurreko azken ekitaldiko argazkia. Irudi hura argitaratu zuen aginagarren heriotzaren berri izan eta berehala, segidan dituzuen omenezko hitzokina. Mezu hau bera baliatu zuen Udalak biharamunean, Gara eta Berria egunkarietan eske-la bana argitaratzeko: Zure herriak aukeratu herriarengatik emana Usurbilek ez du inoiz ahaztuko gugatik egin zenuen lana"

Usurbilgo EAJ-PNV: "Zure lana gure eredu. Agur eta ohore"

Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak eta udal talde jeltzaleak doluminak helarazi dizkio NOAUA!ra igorritako ohar bidez, "frankismoaren ondoren lehen alkate demokratikoki hautatua izan zen Andres Bruño Urdanpilletaren familiari". Heriotzarekiko mina agertzeaz gain, eskerrak helarazi nahi dizkiote Bruñori, herri honen alde egindako lan eredugarriagatik. "Gure herriko alkate jeltzalea izan zen Bruño jaunari agur esan diogun honetan, mina adieraztearekin batera, ozenki eskerrak eman nahi dizkiogu gure herriaren alde hainbeste urteetan zehar egindako lanarengatik eta erakutsitako konpromisoa eta eskuzabaltasunagatik. Zure lana gure eredu. Agur eta ohore", adierazi du EAJ-k NOAUA! bidez.

Kike Amonarriz izendatu dute Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari

Ez-Ohiko Batzar Nagusia egin zuten Euskaltzaleen Topaguneko bazkideek irailaren 27an Andoainen. 2014tik Topaguneko lehendakari izan den Elena Lakak Tolosaldeko Galtzaundi elkarte kide den Kike Amonarrizi eman zion lekukoa, bertaratutako bazkideek ahobatez izendatu ondoren. Euskaltzaleen mugimenduak salto kualitatiboa emateko garaia dela azpimarratu zuen Amonarrizek kargua hartzerakoan.

Kike Amonarrizek emandako konfidantza eskertu zien euskaltzaleen mugimenduko kideei. Topagunearen 22 urteko historian izan diren lehendakarien ekarpena gogora ekarriz, kargua ilusioz eta erantzukizunez hartu duela azpimarratu zuen. Bost helburu nagusi zehaztu zituen bere kargu hartze ekitaldian lehendakari berriak:

- Euskaltzaleen mugimendua salto kualitatibo berri bat emateko prestatzea, kide diren elkarteak indartu eta elkarte berrien sorrera bultzatuz. Horretarako funtsezkoak izango dira antolaketa-eredu berri eta malguen alde egitea, aktibazio soziala bultzatu eta boluntarioen partaidetza areagotzea eta euskaltzaleen mugimen-



Euskaltzaleen mugimenduak salto kualitatiboa emateko garaia dela azpimarratu zuen Kike Amonarrizek kargua hartzerakoan. Argazkia: Aiurri.

KIKE AMONARRIZ

“Euskararen erabilera bultzatu behar da, euskararen normalizaziorako giltzarri diren bi eremutan eraginez: lan munduan eta aisialdian”

duak presentzia urriagoa duen guneetara heltzea.

- Euskara bizitza sozio-poli-

tikoaren erdigunera eramateko herri akordioak bultzatzea.

- Euskaraldiaren hurrengo edizioetan euskararen normalizazioan eragiteko erronka eta aukera berriak lantzea, era guztietako entitateetan eraginez eta euskararen erabilera zabaltzeko urrats praktikoak proposatuz.

- Euskararen erabilera bultzatzea, euskararen normalizaziorako giltzarri diren bi eremutan eraginez: lan munduan eta aisialdian.

- Euskalgintza indartu eta adostasun sozio-politikoak bultzatzea, Kontseilutik.

Horiez gain, Euskaltzaleen Topaguneak azken urteotan indartu dituen eremuetan (hizkuntza eta kultur aniztasunean, aisialdian, kultur-gintzan, mintzapraktikatan, sentsibilizazio ekintzetan eta gogoetan) sakondu eta mugimenduaren eragina handitzen jarraitzea ere markatu zuen Amonarrizek hurrengo urteetarako erronka modura.

Topagunea, Euskaraldiaren sustatzaile nagusia

Azken urteetan garapen handia izan du euskaltzaleen mugimenduak eta asko izan dira Euskaltzaleen Topaguneak eman dituen urratsak. 2014tik hona Euskaltzaleen Topagunea hazteaz batera Euskaltzaleen Mugimendua hazi eta zabaldu egin da Euskal Herri osoan. Topagunean euskalgintzako sektore

guztiekin eta erakundeekin elkarlana lantzeko egin den apustua azpimarratu zuen orain arte lehendakari izan denak, eta horren fruitu izan dela, besteak beste, Euskaraldia. Aktibazioan egindako aurrerapausoa handia izan da, baina oraindik euskararen erabileran aurrera egiteko asko dagoela gogora

ekarri zuen Lakak, bere agurrean.

Lorpenen artean, TOKIKOM eta Mintzalagun egitasmoak

Euskaltzaleen aktibazioan emandako urratsez gain, Elena Lakak azken urteetan Euskaltzaleen Topagunean landutakoak garrantzitsuak izan direla aipatu zuen:

hizkuntz aniztasunaren inguruan egindako urratsak, toki komunikabideen garapena TOKIKOMen eskutik (NOAUA hedabidea bertako partaide da), kultur eta aisialdiaren arloan egiten ari direnak edo euskara praktikatzeko aukera jendetsua Mintzalagun proiektuaren bitartez, besteak beste.

Buruntzaldea ibilian ezagutzera

Familia giroan edo la-
gun artean, eskualdeko
ibilbideez gozatu, bertako
landa-ingurune naturala
ezagutu eta ariketa fisikoa
egitera animatzen gaituzte
bailarako udalek, iganderako
(urriak 13) antolatuta duten
12. Buruntzaldeko Ibilbideen
Egunean. Bost ibilbide izango
dira aukeran. Navi Ruta
aplikazioarekin, bideetan
egongo diren gezi eta zuinekin
eta herrietan berritu dituzten
panelek in ibilbideen gaineko
xehetasunak jaso ahalko
dituzue. Jan edana izango da
bidean zehar jarriko diren
kontrol guneetan, eta itzulerarako
autobus zerbitzua. Iaz 360
ibiltari (174 emakume eta 186
gizon) erakarri zituen hitzorduak.

Tipi-tapa Buruntzaldean

- Eguna: urriak 13, igandea.
- Orduetgia: 08:00-14:00.
- Tokia: Buruntzaldea (Aginaga, Usurbil, Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoain).
- Herri bakoitzaren koloreak:
 - Andoain: urdina.
 - Lasarte-Oria: urre zaharra.
 - Urnieta: berdea.
 - Usurbil: laranja.
- Ibilbideak:
 - Andoain-Lasarte-Oria: ibilbide urdina eta urre zaharra; 7,9 kilometro; oinez egitekoa, mendiko oinetakoak beharrezkoak. Ibilbidea osatzeko bi aukera: Buruntza mendiko gailurra eginez edo mendia inguratuz.
 - Andoain-Urnieta: ibilbide urdina eta berdea; 4,8 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.



Buruntzaldeko udal ordezkariak, urriaren 13ko hitzordua aurkezteko joan den astean Andoainen egin zuten agerraldiko irudia.

-Andoain-Usurbil: urdina eta laranja; 14,9 kilometro Andatzatik barrena; oinezkoentzat soilik, mendiko oinetakoak beharrezkoak.

-Lasarte-Oria-Urnieta: ibilbide urre zaharra eta berdea; 3,9 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.

-Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga (Santuenetik barrena, Mapi-leraino): urre zaharra eta laranja; 9 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.

■ Kontrol guneak eta anoa (argibideak emateko eta moka-duak eta edatekoa banatzeko):
-Usurbilen: Santuenea auzoko Zorrotzeko zubiaren parean.
-Aginagan: Mapil inguruan.

-Andoainen: udaletxe azpian.
-Lasarte-Orian: San Pedro elizaren ondoko plazan.
-Urnietan: udaletxe azpian.

■ Itzulerarako autobus zerbitzua:

Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.

Usurbil, San Inazioko biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.

Lasarte-Oria, Dorretzeko biri-

bilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
Andoain, Goiko plaza atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.

Urnieta, Kioskoko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40 (zerbitzua-
ren amaiera).

■ Oharrak:

-Partaide bakoitzak abiapuntuan txartela jasoko du bertako lekuko zigituarekin. Amaieran nor bere herrira itzultzeko autobus zerbitzua baliatu ahalko da, baina ezinbestean aipatu txartela erakutsi beharko da.

-Bi ibilbide egiten dituenak ur bidoi bat jasoko du opari. Baita Andoain-Lasarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak osatzen dituztenek.

■ Informazio gehiago: eskualdeko kiroldegietan edo buruntzaldea.eus

■ Antolatzaileak: Buruntzaldeko Udalak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

■ Laguntzaileak: Andatza M.K.T. (Usurbil), Euskalduna Mendigoizale Taldea (Andoain), Ostadar S.K.T.-ko mendizaleen saila (Lasarte-Oria), Super Amara (kontrol guneetako jan edanaren hornitzailea), Eusko Jaurlaritzak.

Futbola Haranen

Urriak 12, larunbata

■ 16:30 Jubenilak: Usurbil F.T.-Zarauz KE A

Eskubaloia Oiardon

Urriak 11, ostirala

■ 19:30 Senior neskak (Euskadiko Txapelketa): Urbil-Usurbil K.E. - Irauli-Bosteko

Urriak 12, larunbata

■ 10:00 Kadete mutilak, Euskal Liga (Euskadiko Txapelketa): Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast

■ 11:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga (Euskadiko Txapelketa): Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast

Endika Abril, azken fasera begira

Urriaren 6an lehen faseko azken neurketak jokatu ostean, finalerdiei begira da jada, 56. Endika Abril Errebote Txapelketa. Aldaketarik ez bada, igandean jokatuko dira finalerdiak.

Mikel Otaegi, Castellonen nagusi

Asteburuan Castellonen (Valentzia) ospatu den Infnitriman lasterketako txapelduna izan da usurbildarra. Saikapen buruan amaitu du Otaegik, hiru egunez ospatu diren etapetan nagusitu ostean. Lehen etapan, 10 kilometro igerian eta 135 kilometro txirrinda gainean egin zituen. Bigarrenetan 278 kilometro bizikleta gainean eta azken egunean, 84 kilometro lasterketa gogorra. Zorionak!

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patri *Patxi* jatetxea
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatara
© 943 362725 · © 688 690 361

Otar-Goxo
El ikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbil erdialdean, 2 logelako pisu bat alokatzen dut. Tel. 685 720 124.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila ga-

biltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komuna, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa ne-

goziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegan. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko

taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaileak behar dira Aratz erretegan, info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska ardu-



Zorionak Ekai!! Gure etxeko txikiak 4 urte bete zituen urriaren 6an. Muxu potoloak familiaren partetik.

Heriotzak**Andres Bruño Urdanpilleta**

93 urterekin hil zen urriaren 5ean Aginagan.



ratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketara, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo

nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketara. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segi-

tuan lanean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

AEG markako 8 kiloko lehorgailua salgai. Oso gutxi erabilia. 616 273 785.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Urriak 10 - Urriak 20

Osteguna 17 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

11 ostirala

- **Aginagako jaiak: Umeen Eguna.** Ikus 14. orrialdea.
- **Mintzapraktika egitasmoaren aurkezpena.** 17:30ean Etumeta AEK euskaltegian.

12 larunbata

- **Aginagako jaiak: Gaupasa Eguna.** Ikus 14. orrialdea.

13 igandea

- **Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna:** 8:00-14:00 artean, Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbilgo bideetan barrena.
- **Andatza M.K.K.-ren irteera:** Baztango Itzulia, 2. etapa. Abiatzeko hitzordua: 7:00etan Oiardo Kiroldigitik.

Mintzapraktika egitasmoaren aurkezpena

Euskara ahotan hartzeko espazio edo lagun arte bila bazabiltza, Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak sustaturiko mintzapraktika duzu egitasmo aproposa.

“Euskara praktikatu nahi baduzu eta ez badakizu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen ditugu: mintzalagun taldeak, gurasolagunak, tailerrak, txangoak...”. 2010az geroztik Usurbilen Mintzalagun egitasmoa sustatzen dabilta euskaltegia, Udala eta NOAUA! K.E.

Bidelari eta bidelagunak behar izaten ditu ekimen honek; euskara ikasten aritu edo maila hobetzen ari direnen eta euskara baliatzen jakinik, mintzapraktikan aritu nahi dutenena.



Ostiral honetan egingo da aurkezpen ekitaldia, arratsaldeko 17:30etik aurrera Etumeta AEK euskaltegian.

Urriaren 11n, euskaltegian

Egitasmo hau jendarean aurkeztuko dute bilera ireki bidez, datorren urriaren 11n, arratsaldeko 17:30ean Etumeta AEK euskaltegian. Euskaltzale guztiok gonbidatuak gaude hitzordura.

Datorren Harria Hitz, Koldo Almandozekin

Herriko marrazkigileekin eginiko “Dzirtzart” saio bereziaren ondotik, 2017ko udazkenean inguruotan “Oreina” filma grabatu zuen Koldo Almandoz zinemagilea izango da urriaren 26rako antolatu den hurrengo Harria Hitz bisita gidatuko gonbidatu berezia. “Argazpituak” tailerra eskainiko du. Herriko

elementu ezberdinei azpituak jartzeko kale arte jarduera izango da hilaren 26an 16:00etan Dema plazatik abiatuta 19:00ak arte. Lehenago, 12:30etan, Harria Hitz bisita gidatua. Izena bideotatik eman daiteke: 688 818 017/info@kultour.pro. Plaza kopuru mugatua. Informazio gehiago hemen: harriahitz.eus

Datozenak

“Mitoak eta egiak sexologian”, Jon Etxaberen eskutik

Jon Etxabe Telleriak sexologiari buruz aurreikusia dagoen bigarren saioa eskainiko du urriaren 18an ostirala; “Mitoak eta egiak sexologian”. Santuenea Elkartean, arratsaldeko 19:00etan hasita. Antolatzailea: Santuenea Elkartea.

Liburutegiaren Astea

Gogotik ospatuko du Sutegik, urriaren 24ko Liburutegien Nazioarteko Eguna. Ekimenez jositako astea iragarri du Udalak liburutegian:

- Urriak 22, 18:30 “Tximeletak aurrera” hitzekin jolasteko saioa Xabier Olasorekin, 3 urtetik gorakoentzat.
- Urria 23, 19:00 Ugaitz Agirreren “Tximeletak bizkarrean” eleberriaren inguruko 14. Euskarazko Irakurketa Topaketa, Yolanda Arrietak gidatua. Liburuak eskuragarri dituzue Sutegin.
- Urriak 24, 18:30 “Abezadario titirijao”. Letrekin jolasean, Juan Kruz Igerabiderek.
- Urriak 25, 18:30 “Jar ezazu Liburuzain bat zure bizitzan”, Idoia Torregarai umoregilearen umore-pieza.



Kima

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 76 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Ataldu pol. ataldu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astesua In Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
USURBIL

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arozzgi.net jr.ibargoen@arozzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri Arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFIGURAZIO OREMIKAK · KOMUNEKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

31 ETXEBIZITZA USURBILEN, UGARTONDO AUZOAN



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa



Garajea

943 30 29 20

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude

Finantziatuta

